

ITURRICO MALTAGARRIA




SOPENAREN

MARGO-EDERDUN
IPIUAK

C. BUSQUETS

Maria Kuper
606435702



Orain dala urte asko,
Maitagarrien Baso-ondoko etxetxo batean,
alargun bat bizi zan. Bi alaba zituan.
Biak oso politak. Baña zarrena, Edurne,
arroa zan ta iguingarria.
Eztitxu ordea, goxoa ta bioztia.

Eztitxu langillea zan: soñekoak garbitzen,
josten eta etxeko egin-bear guztietan
laguntzen zion amari.
Edurnek, berriz, ixpilluari begira
botatzen zitun egunak,
soiña apaindu eta burua orrazten.



Goiz batean, Eztitxuk etxea garbitu ondoren,
Edurneri galde-egin zion:
Iturrira noa ur billa; nai al dezu nerekin etorri?
Edurne artean jeiki gabe zan,
eta mar-mar batekin erantzun ondoren,
lotan jarraitu zuan.



Eztitxuk pitxar bat artu zuan
eta poz-pezik basora abiatu zan.

Eguna zoragarria zan,
bide ertz guztiak lorez josita zeuden,
eta txoriak pioka zebiltzan
neskatxaren inguruan.



Iturria arri aundi batzuen artean zegoan.
Urak zillarra zirudin,
ain zan garbi ta dizditsu.

Eztitxuk, arpegia eta eskuak garbitu,
ta pitxarra bete zuan gero
ur gozo arekin.



Etxera itzultzerakoan
amonatxo bat ikusi zuan ondoan
zarpiltsu jantzia.

—Nezkatxo, zure pitzarretik edaten
utziko al didazu?

—Oso pozik, amona erantzun zion Eztitxuk.



Utzi bakarrik ez:
amonatxoak lasaiago edan zezan,
artu eskuetan pitxarra
ta berak eman zion edaten.

—Polita bezin ona zera —xarrak goxoki.
Begira, ni ez naiz ikusten dezun amona xarra,
baso ontako maitagarria naiz;
ta nik zure biotz on ori santu egin nai det.





Ura Eztitxuren arritazuna, amonatxoa antxen bertan
nexka eder eta irripartsu biurtu zan.

Azti-ziriz ikutu ta ala esan zion:

—Amona-zar batekin ain ona izan zaralako,
esaten dituzun itz guztiak lora ta pitxi eder
biurtuko zaizkitu emendik aurrera.



—Ezkerrik asko —erantzun zuan neskatxoak,
eta une berean bi pitxi eder
sortu ziran bere ezpañetatik.

Etxera irritxi zanean,
amak errita egin zion berandu etorri zala-ta.
Eztitxut gerta zitzaiona kontatu zion,
ta bai zorua lorez
eta pitxi ederrez bete ere.



Zergatik ezin du Edurnek
Eztitxuren doaia bera euki?
—galdetzen zuan amak berekiko.

Orduan, urrezko pitxartxo bat artu
Edurneri eman eta.

—Zoaz iturrira —esan zion, bete pitxartxoa,
ta amona-zarrak
edaten amateko
eskatzen dizunean,
alaikiro eman zuk,
aizpa bezela
sarituko zaitu-ta.



Edurne asarre joan zan iturrira.

Maitagarria itxoiten zeukan,
baña nexka gazte itxuratan oraingoan.

—Zure pitxarretik edaten utziko didazu,
neskatx polit orrek, ala ez da?

—Nere urrezko pitxarretik
maitagarriak edango du, ez beste inork.
Egarri bazera, artu eskuetan ura eta edan.



Maitagarria ni naiz, —erantzun zuan nexka gazteak,
eta zure gaiztakeriaren ordaiñez orra nik esan:
Biur bitez zure itzak suge ta zapo.

Amak au jakitean,
asarre bizian jarri zan.





Zuk dezu erru guzia,
zuk —ezan zion
Eztitxu gaixoari.
Alde etxe ontatik!

Eztitxu, oso goibel,
basoan barrenera joan zan eta zugaitz aundi baten
ondoan jarrita, negarrari eman zion.
Gaua gañean zan eta erabat bildurturik zegoan,
baso ura gaizetsia
edo sorgindua zegola esaten bai-zuten.
Baiña iturriko maitagarria bere alde
zegoan oraindik ere, eta erregearen semea
bertatik pasa-erazi zuan.



Eztitxu negarrez ikustean
zer zezakean Jakin nai izan zuan.
Eztitxuk gertatua adierazi zion.
Printzea, Eztitxuren ezpañetatik irtetzen ziran
loreak eta pitxi zoragarria ikusita,
arri ta zur gelditu zan.

Printzeak bere etxera eraman zuan nexkatxoa.

Eta ain polita ta ona zala ikusirik,
berarekin ezkondu nai izan zuan.

Eztaietara Iturriko Maitagarria deitu
eta Edurneri barkatzeko eskatu zioten.

Eta ala egin zuan berak.

Geroztik Edurne zintzo ta onbera izan zan,
eta danak ere ondo zoriontsu izan ziran
luzaroko urteetan.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.
Depósito Legal: B. 36.296 - 1969
Gráficas Ramón Sopena, S. A.
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)
Impreso en España - Printed in Spain

SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simon lelo

Asto-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria